



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko apirilaren 1a

30. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, jakiteko zergatik eskatzen den hizkuntzako B2 maila hizkuntzak ikasteko programak ematen dituzten irakasleak kreditatzeko deialdian, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (2. or.).
- Galdera, jakiteko zer egutegi aurreikusi duen Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuarekin Foru Komunitateko azpiegiturei buruzko hitzarmena sinatzeko, Ana Figueras Castellano andreak egina (2. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina (4. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, jakiteko zergatik eskatzen den hizkuntzako B2 maila hizkuntzak ikasteko programak ematen dituzten irakasleak kreditatzeko deialdian.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zergatik eskatzen den hizkuntzako B2 maila hizkuntzak ikasteko programak ematen dituzten irakasleak kreditatzeko deialdian.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, ondoko ezohiko galdera aurkeztu du, apirilaren 3rako eta 4rako deitutako Osoko Bilkurarako, Hezkuntza eta Kultura kontseilari Carlos Pérez-Nievas jaunak ahoz erantzun dezan:

Hizkuntzak ikasteko programak ematen dituzten irakasleak kreditatzeko deialdian, zergatik eskatzen da hizkuntzako B2 maila?

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

---

**Galdera, jakiteko zer egutegi aurreikusi duen Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuarekin Foru Komunitateko azpiegiturei buruzko hitzarmena sinatzeko.**

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zer egutegi aurreikusi duen Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuarekin

Foru Komunitateko azpiegiturei buruzko hitzarmena sinatzeko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellanok, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasuneko ondoko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Nafarroako Gobernuak zer egutegi aurreikusi du Espainiako Gobernuarekin Foru Komunitateko azpiegituri buruzko hitzarmena sinatzeko?

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

**Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Zizur Nagusiko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina**

**AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (4. or.).
- II. Helburua (5. or.).
- III. Norainokoa (5. or.).
- IV. Iritzia (6. or.).
  - IV.1. Zizur Nagusiko Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2006ko ekitaldikoko Kontu Orokorra (6. or.).
  - IV.2. Legezketasuna (6. or.).
  - IV.3. 2006ko abenduaren 31ko finantza-egoera (6. or.).

IV.4. 2005eko txosteneko gomendioen jarraipena (6. or.).

V. Amaierako ondorioa (6. or.).

VI. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (7. or.).

VI.1. Administrazio-kontratazioa. (7. or.).

VI.2. Kudeaketari buruzko bestelako gomendioak (8. or.).

VI.3. Hirigintza (8. or.).

Eranskina. 2006ko ekitaldikoko kontuen oroitidazkia.

Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko webgunean: [www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)).

**I. SARRERA**

Bere jarduera-programari jarraituz, Comptos Ganberak Zizur Nagusiko Udalaren eta haren erakunde autonomoen –Kirol Patronatua, Kultur Patronatua eta Musika Patronatua– 2006ko Kontu Orokorren fiskalizazioa egin du.

Zizur Nagusiko Udalak 13.197 biztanle ditu eta, bere erakunde autonomoekin batera, hauexek ditu zifra adierazgarrienak 2006ko abenduaren 31n:

Erakundea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak 2006-12-31n
Udala	23.683.750,07	52.572.810,56	107
Ardoi Kirol Patronatua	492.984,87	470.470,93	0
Kultur Patronatua	427.360,24	445.991,09	0
Musika Patronatua	386.303,06	387.371,44	13
<b>Guztira</b>	<b>24.371.413,86</b>	<b>53.257.659,64</b>	<b>120</b>

*Oharra:* Guztizko zenbatekoak bateraturik daude, eta hortaz, ez datoz bat xehetasunen baturarekin.

Udala Iruñerriko Mankomunitatean sarturik dago, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak eta eskualdeko hiri-garraiokoak.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako toki araubidea gaurkotzeari buruzko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legea.
- Toki araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua.
- Kontratu publikoei buruzko Foru araubidea.
- Estatuaren dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legea, azaroaren 17koa.
- Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administraziorako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.
- Udalaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne araudia.

Txostenak sei atal ditu, sarrera barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, eginiko azterlanaren norainokoa eta, laugarrenean, Kontu Orokorrari, legezketasunari, finantza egoerari eta aurreko gomendioen jarraipenari buruz dugun iritzia agertzen dugu. Bosgarren atalean gure lanetik atera daitezkeen azken ondorioak aurkezten ditugu eta, seigarren eta azkenean, berriz, erakundearen barne-antolaketa eta kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta gomendioak biltzen dira, arloan arabera.

Halaber, eranskin batean sartu da udalak 2006ko ekitaldiko kontuekin eginiko oroitidazkia.

Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

## II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Zizur Nagusiko Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Fiskalizatutako entitatearen Kontu Orokorrak fidelki islatzen ote duen alderdirik behinenetan entitatearen finantza-egoera eta aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta arauari jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Entitateak garaturiko jarduerari aplikagarri zaion legeriaren betetze-maila.

c) Erakundearen egoera finantzarioa 2006ko abenduaren 31n.

d) Azken fiskalizazio-txostenetan emandako gomendioak noraino bete diren.

Txostenak biltzen ditu udalaren antolamendua, barne kontrola eta kudeaketa hobetzeko beharrezko jo ditugun iruzkin eta gomendioak.

## III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Zizur Nagusiko Udalaren Kontu Orokorraren fiskalizazioa egin du –udalarena berarena eta haren erakunde autonomoena hartzen ditu–.

Hona hemen udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontuaren betetze-maila, ekitaldiko aurrekontuaren emaitza eta udalaren eta haren erakunde autonomoen diruzaintza-gerakina.

- Entitatearen eta haren erakunde autonomoen egoera-orria.

- Entitatearen eta haren erakunde autonomoen galera eta irabazien kontua.

- Udalaren eta haren erakunde autonomoen kontu bateratuak.

- Oroitidazkia

Udalak kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka. Erakunde autonomoek badute kontabilitate orokorra ere, udalean ezarritako ereduaren aplikazio sinplifikatu bati esker.

Beraz, eginiko lanak haxe izan du arretagai: dirusarrerei eta gastuei buruzko kapitulu ekonomikoak eta ondare-masak berrikustea, horretarako aztertuz antolamenduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkion hainbat puntu.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako fiskalizazio printzipioei eta araei jarraituz eta aurreko urteetako lanetan agerian utzi diren baldintzen eta arazoan arabera beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz.

#### IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Zizur Nagusiko Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Udalaren erantzukizuna da kontuaren prestaketa eta edukia.

Gure azterketan oinarriturik, honako iritzi honetara iritsi gara:

##### IV.1. ZIZUR NAGUSIKO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN 2006ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da eta gaurkotu gabe dago. Hala ere, egiaztatu ahal izan dugu ondasunen katalogatze, baloratze eta kontrol lanak egiten ari direla.

Arestian aipaturikoen ondorioak alde batera utzita, udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen du alderdirik behinenetan gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta araei jarraituz.

##### IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke entitatearen jardura ekonomiko eta finantzarioa oro har legezotasun printzipioari jarraituz garatu dela.

##### IV.3. 2006ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA

Hasierako aurrekontu bateratua 33,4 milioi eurokoa da, eta behin betikoa, 33,7 milioi eurokoa.

Gastuen betetze-maila ehuneko 72koa da, eta dirusarrerena, ehuneko 158koa.

2006ko ekitaldian gastuen betetzearen ehuneko gora egin du, bai eta dirusarrerena ere.

Baliabide bateratuen ehuneko 39 kapital transferentzietatik dator. Kapitulu horren betetze-maila ehuneko 105 da.

Dirusarreraren ehuneko 41 inbertsio errealeen besterentzetik dator, eta horien betetze-mailak ehuneko 600 egiten du.

Gastuei dagokienez, horien ehuneko 62 inbertsio errealei dagokie eta horien betetze-mailak ehuneko 64 egiten du. Ohiko ondasunen erosketei eta langileen soldatei buruzko kapituluak aitorturiko gastuaren 36 egiten dute, eta bi kapitulu horien betetze-maila ehuneko 93 ingurukoa da.

Ekitaldiaren amaieran aurrekontuaren emaitza doituari 1,58 milioi euroko defizita ageri da.

2006ko abenduaren 31n ez dago epe luzeko zorrik.

Zizur Nagusiko Udalak eta bere erakunde autonomoek finantza-egoera sendoa erakusten dute 2006ko abenduaren 31n. Ezaugarri gisa ditu zorpetzerik eza eta biztanle bakoitzeko 401,15 euroko tributu bidezko dirusarrerak.

##### IV.4. 2005eko TXOSTENEN GOMENDIOEN JARRAIPENA

Oro har, 2005eko ekitaldiari buruzko txosteneko administrazio- eta kontabilitate-izaerako gomendio nagusiak aintzat hartu direla esan daiteke.

#### V. AMAIERAKO ONDORIOA

Laburtuz, eta amaierako ondorio gisa, esan genezake udalak modu egokian kudeatzen dituela bere aurrekontuak eta finantza-egoera sendoa duela, epe luzeko zorrik gabe. Hala ere, honako gomendio hauek egin ditugu:

- *Aurrekontuaren kudeaketaren barne kontrolko mekanismoak indartu eta osatu behar dira, egindako eragiketak ziurtatzeko eta bermatzeko; batez ere, saldoak berdinkatu eta berraztertzeari, kontabilitate printzipioei eta inbentarioak eguneratzeari dagokienez.*

- *Kultura patronatua eta kirol patronatua udalaren zerbitzu deszentralizatu bihurtzeko aukera aztertzea, ez baitute ez instalazio ez langile berekirik.*

**VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK****VI.1. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA.**

Atal hau bi zatitan banatuta dago: batetik, hornidura-erosketari eta zerbitzu-emateari buruzko alderdiak, eta, bestetik, inbertsioak.

Kontzeptua	2006an aitorturiko betebeharrak
Errentamendua	8.448,96
Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza	476.585,61
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	4.048.421,90
Zerbitzua dela-eta emaniko kalte-ordainak	87.502,68
Argitalpen gastuak	9.437,73
<b>Guztira</b>	<b>4.630.396,88</b>

Aurreko urteetan esleituriko zenbait kontratazio espediente berraztertu ditugu. Hona hemen:

- Kirol instalazioen funtzionamendua kudeatzeko zerbitzuak kontratatzea: 470.228 euro.
- Ardoi sektoreko urbanizazioaren kudeaketa kontratatzea: 317.258 euro.
- Zizurko hiri garbiketa zerbitzua kontratatzea: 316.644 euro.
- Otik 3 urte bitarteko haurrak zaintzeko zerbitzua kontratatzea: 253.610 euro.
- Ikastetxeak garbitzeko zerbitzua kontratatzea: 153.924 euro.
- Haur eta gazteentzako prebentzio programa: 135.026,20 euro.
- Kultur Etxearen funtzionamendua kudeatzeko zerbitzua kontratatzea: 127.997 euro.

Horretaz gain, ekitaldi honetan esleituriko kontratu hauek berraztertu ditugu:

- Udaletxea garbitzeko zerbitzua kontratatzea: 53.737 euro.

**VI.1.1. Hornidurak erosi eta zerbitzuak ematea**

Hona hemen 2006ko ekitaldian aitorturiko betebeharren xehakapena:

- Zehapen espedienteak kudeatzeko zerbitzua kontratatzea: gehienez 25.000 euro.

- Udaltzaingoaren autoa erosteko kontratazioa: 34.100 euro.

Comptos Ganberaren gomendioak betez, erosketen kudeaketarako prozedura normalizatua aplikatzen da. Aipatu espedienteen laginketatik ez da ondorioztatzen araudiaren urraketarik.

**VI.1.2. Langileen kontratazioa**

Kontratazio espediente hauek aztertu ditugu:

- Berdintasunerako teknikari bat kontratatzea.
- Gizarte langile bat (familiaren arlokoa) kontratatzea.

Egindako azterketatik ondorioztatzen da indarreko araudia behar bezala bete dela, eta zuzen egin dela espedienteen kontabilitate- eta administrazio-jarraipena.

**VI.1.3. Inbertsioak.**

Hona hemen 2006ko ekitaldian aitorturiko betebeharren xehakapena, inbertsioen arabera:

Kontzeptua	2006an aitorturiko betebeharrak
Azpiegiturak eta erabilera publikoko ondasunak	14.542.872,12
Zerbitzuen funtzionamenduari loturiko inbertsioak	646.518,77
Inbertsio ez-materialak	16.210,72
<b>Guztira</b>	<b>15.205.601,61</b>

2006ko ekitaldian inbertsioen arloko esleipen garrantzitsuenak honakoak izan dira:

- Ardoi sektorearen urbanizazioa. Aztertutako zenbatekoa: 14.356.981,90 euro.

- Bide publikoen berritze-lanak, zolatze-lanak, asfaltoa, pintura eta gaineko pasabideak. Zenbateko aztertua: 114.388,04 euro.

Esleipen-espediente horiek azterturik, ez dugu administrazio-kontratuei buruzko araudiaren arau-hausterik detektatu.

## VI.2. KUDEAKETARI BURUZKO BESTELAKO GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetakako bakoitzerako, gure aburuz udalak bete behar dituen gomendio nagusiak, bere antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

Kasu batzuetan, gomendioak 2007ko ekitaldian betetzen ari dira.

### VI.2.1. Antolamendu orokorra

- *Barne araubideari buruzko erregelamendua egitea, horren bidez udaleko organo exekutiboen eskumenak zehaztu eta haien artean banatzeko eta erakunde autonomoekiko harremanak arautzeko.*

### VI.2.2. Inbentarioa-lbilgetua

- *Udal ondasunen eskriturak egiten eta ondasunok erregistratzen amaitzea, hala jabari publikoak nola ondare-ondasunak eta komunalak.*

- *Udal inbentarioa gaurkotu eta onestea.*

- *Udal inbentarioaren etengabeko gaurkotzea eta hura kontabilitatearekin konektatua egotea lortzeko prozedurak taxutu eta aplikatzea.*

- *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak aztertu eta garbitzea, udalaren ondasunak ongi isla ditzaten.*

### VI.2.3. Alderdi orokorrak

- *Nominei buruzko aplikaziotik lorturiko datuak kontabilitate sistemara eskuz alda daitezen saihestea eta horien arteko loturak aztertzea.*

### VI.2.4. Patronatuak

- *Kultura eta kirol patronatuak udalaren zerbitzu zentralizatu bihurtzeko aukera aztertzea, ez baitute ez instalazio ez langile berekirik.*

## VI.3. HIRIGINTZA

2003ko martxoaren 28an hartu zuen indarra Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko Foru Lege berriak, abenduaren 20koak, zeinaren bidez ordeztan baita uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legea. Udalak hirigintza plan berria onetsi zuen 2004ko urtarrilean.

Eginiko berrikusketari jarraikiz, hirigintza proiektuetan udalak modu arrazoizkoan betetzen ditu lege-zehaztapenak. Hala ere, honako gomendio hauek egin ditugu:

- Antolamenduzko egitura bat ezartzea, non arduradunak izendatzen diren eta kideen ardurak eta eskumenak idatziz zehazten diren, eta hirigintza-kudeaketarako prozedurak ezartzea.

Aurrekontuaren kapital transferentziengatiko dirusarrerak 20,5 milioi euro egin dute ekitaldi honetan. Horietatik gehienak Ardoi sektoreko U-1 urbanizazio kuotetatik etorri dira. Udala arduratzen da urbanizazioaren kudeaketaz, baina kostua lur-sailen jabeek hartzen dute beren gain.

Udalak aurkeztutako oroitidazkian jasotzen da ekitaldi honetan gauzaturiko jardueren xehakapena.

Francisco Javier Sesma Masa auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde